



TOKIKO 2025-2026

Gipuzkoako udalei zuzendutakoak
(edo menpeko udal erakundeei)

*Gipuzkoako toki erakundeei eta haien
menpeko erakundeei eta toki-
erakundeen elkarteek antolatutako
kultura jarduerak gauzatzeko
dirulaguntzak*

Oinarriak eta infoa



ESKATZAILEAK

Laguntzaren xede diren jarduerak antolatzen dituzten toki-erakundeak eta haien mendeko erakundeak, bai eta erakunde horien taldeak ere, nortasun juridikorik ez izan arren, dirulaguntza ematea justifikatzen duten proiektuak, jarduerak edo egoerak gauzatzeko moduan badaude.

KANPO GELDITZEN DIRA

- Beren izaera edo xedea dela-eta, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren jardun-eremuekin zuzeneko loturarik ez dutenak
- Dirulaguntza izendunaren xede direnak
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko beste laguntza-deialdi batzuetan egokiago edo esanbidez sartuta daudenak. Horri dagokionez, egokitzat jotzen diren eskabideak horietan sartu ahal izango dira
- Beren izaera eta proiektzioa dela-eta, udal-eremutat jotzen direnak
- Aisia, denbora librea eta gazteria okupatzera zuzendutakoak
- Jai-programak eta erritu-programak
- Merkatu tematikoak, azokak edo nekazaritza-jarduerak antolatzea, eta lehiaketa edo jarduera gastronomikoak

DIRU KOPURUA

Gehienez 30.000 €

- 10.000 biztanle arteko udalerrietako udalek programa bakarra aurkeztu ahal izango dute, 5.000 €tik gorako gastu-aurrekontuarekin
- 10.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerrietako udalek bi programa aurkeztu ahal izango dituzte gehienez, eta programa horien gastu-aurrekontuak 10.000 €tik gorakoak izan beharko dira
- 20.000 biztanletik gorako udalerrietako udalek hiru programa aurkeztu ahal izango dituzte gehienez, eta programa horien gastu-aurrekontuak 10.000 €tik gorakoak izan beharko dira

Dirulaguntzaren xede den programa garatzeko aurreikusitako gastuen % 50

AURKEZTU BEHARREKOAK

Eskaera- inprimakia bete behar da honako hau aurkeztuta:

1. Proiektuaren laburpena eta aurrekontua (zehaztuta eta orekatuta proiektuaren diru-sarrerak eta gastuak) (**nahitaezkoa**)



Eskaera orria egoitza elektronikoan dago eskuragarri

ESKAERA EPEAK ETA TRAMITAZIOA

AZKEN EGUNA: 2025EKO MAIATZAREN 8AN

ZURIKETA AURKEZTEKO

Aipatutako dokumentazioa aurkezteko epea deialdiaren hurrengo urteko martxoaren 1ean amaituko da.

ORDAINKETAK

Dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira: % 60 dirulaguntza emateko ebazpenarekin batera eta % 40 diruz lagundutako jarduera egin ondoren.

TRAMITAZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren administrazio-egoitzaren bidez egiten da (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu>)

GOMENDAGARRIA: ziurtagiri digitala lortu (B@kQ, DNle...).

BALDINTZAK

- 10.000 biztanletik beherako udalerrietako udalek egitasmo bakar bat aurkeztu ahal izango dute; gastuen aurrekontua 5.000 € baino gehiagokoa izango da
- 10.000 eta 20.000 biztanle bitarteko udalerrietako udalek gehienez bi egitasmo aurkeztu ahal izango dituzte; bakoitzaren gastuen aurrekontua 10.000 € baino gehiagokoa izango da
- 20.000 biztanletik gorako udalerrietako udalek gehienez hiru egitasmo aurkeztu ahal izango dituzte; bakoitzaren gastuen aurrekontua 10.000 € baino gehiagokoa izango da

LAGUNTZAK EBALUATZEA ETA EMATEA

1. FASEA	60 PUNTU
Programaren interesa mapa kulturalaren barruan	20
Programaren kalitatea eta originaltasuna	20
Programaren finkatze-maila	5
Inplikaturako tokiko eta kulturako eragileekin parte hartzea eta koordinatzea	10
Berrikuntza	5
2. FASEA	40 PUNTU
Aurrekontuaren egokitasuna	10
Euskararen presentzia eta erabilera	10
Genero ikuspegia txertatzea	10
Gazteak sartzea	10